

Etxea bero, gas barik

BEROKUNTZA-SISTEMA



OIER ETXEBARRIA GOIENER

IRUDIA: WIRESTOCK / FREEPIK

Mundua energia trantsizio betean dago eta gure kontsumoak non dauden ikasten ari gara, berriztagarriekin ordezkatzeko saiatzeko. Irakurri eta entzuten dugunari kasu eginez gero, argindarraren bueltan omen dago dena, baina, ostruken antzera, burua lur azpian sartzearen antzekoa litzateke horretara mugatzea.

Industriako prozesu ez-elektikoetan, mugikortasunean eta berokuntzan askoz ere energia gehiago behar dugu gaur egun: energia guztiaren %75etik gora!

Berokuntzari dagokionez, gure eraikinen barruan konfort egoera mantentzeko behar dugun energiari buruz ari gara. Gure eremu geografikoan, momentuz, etxebizitzetan neguko hilabeteetan izaten dugu energia gehien berokuntza beharrak asetzeko, eta, momentuz, kasu batzuetan hoztekoa udako hilabeteetan.

Neguko hilabeteetako bero behar horiek asetzeko, etxebizitza-blokeetan bizi garen gehiengook gas-galdarak erabiltzen ditugu, eta, askok jakingo duzue, teknologia

horren erabilerak epemuga dauka, efizientziari buruzko Europako azken zuzentarauak 2040a jarri baitu erregai fosilekin dabilen sistemak instalatu ahal izateko azken urtea, eta 2025a, horrelakoetarako dirulaguntzak emateko azken urtea.

Isolamenduaren estrategia

Baina zein da gas-galdaren ordezko aukera? Irakurri eta entzuten dugunari kasu eginez gero, aukera bakarra planteatzen digute: bero-ponpak. Baina benetan hori al da aukera bakarra? Gas-galdarak bero-ponpekin ordezkatu eta kito?

Goienerren beste modu batera ikusten dugu gai hori. Alde batetik, gaur egungo eraikinen bero beharrak handiak direla kontuan hartu behar dugu, eraiki zirenean bete behar zuten legediak isolamendu gutxi eskatzen zuelako, edo batere ez. Horren aurrean, berotze sistema ordezkatu aurretik, etxearen isolamenduan egin behar batzuk daudela uste dugu. Lehenik eta behin, eraikinen egoera ondo aztertu behar da; lurzorutik eta inguruko airearen tenperaturatik isolatzeko duen gaitasuna aztertu. Garrantzitsuena etorkizuneko

bero beharrak murrizteko diagnostikoa eta hobekuntza plana egitea da. Hobekuntza horiek, pausoka egitea pentsatzen bada ere, ez dira banaka ulertu behar; horregatik, hobekuntza plana eraikinen ikuspegi globaletik egitea garrantzitsua da, ez baita gauza bera lehenengo eraikina isolatu eta gero instalazioak hobetzea edo alderantziz.

Plan horrek etxebizitza nola isolatuko dugun ezarriko du. Zenbat eta isolamendu hobea izan, orduan eta energia behar gutxiago izango dugu, eta konfort termiko eta akustikoa hobetuko ditugu. Horretarako, bi edo hiru geruzako leihoak, kanpoko horman SATE edo fatxada aireztatuak ipintzea izaten da ohikoena, eta teilatuan eta lurzoruan isolamendua.

Berokuntza-sistema

Eraikinen bero beharrak gutxitu ditugunean, berokuntza-sisteman pentsatzeko unea heldu da. Lehenik eta behin, berotze-sistema kolektiboa izango den edo ez erabaki behar da –aldeaz aurretik kolektiboa baldin bazen, kolektiboaren aldeko apustua egitea da egokiena–. Banakako sistemak hobesten badira, etxebizitza-



TENPERATURA ALTUKO BEROKUNTZA- SISTEMETAN BIOMASA- GALDARA IZAN DAITEKE AUKERA EGOKIA

blokeetan denontzat balioko duen aukera bakarra bero-ponpak izango dira. Horrek etxebizitza bakoitzean bi aparatu izatea eskatuko du, bat eraikinaren kanpoaldean eta beste bat barruan –bat bakarrarekin egiten bada, kanpoaldearekin komunikazioa egingo duen sistemaren bat beharko du–. Bero-ponpen abantaila da argindar energia unitate batekin bero unitate bat baino gehiago sortzen duela. Halaber, kanpoan dagoen tenperaturaren eta hezetasunaren arabera, errendimendua handiagoa edo txikiagoa izango da. Ez da sistema merkea, baina behar energetikoak dezente txikitu ditzake.

Aitzitik, sistema kolektiboa hobesten bada, eraikin mailakoa zein auzo mailakoa –herri-hiri

mailakoak ere badaude–, berotze-sistema zentralaren teknologia aukeratu behar da: ezagunenak bero-ponpak eta biomasa-galdarak dira: ura kokaleku bakarrean berotzen da eta etxe bakoitzera ur bero horrek energia garraiatzen du, eta bertan, energia trukatzeko sistema baten bidez, etxearen bero beharrak aseko ditu –ur bero sanitarioa eta berogailuak–. Etxeetara heltzen den ur beroaren tenperaturaren arabera, etxeetako berokuntza-sistemak beharko duen azalera desberdina izango da, eta ur bero horrek bidean galtzen duen energia ere bai. Errendimendu onena tenperatura baxuko sareek ematen dute –sareko uraren tenperatura 60 gradukoa edo baxuagoa denean–, baina horrek etxeetako berogailu *tradizionalak* aldatzea eta zoru

erradiatzailea edo tenperatura baxuko berogailuak ipini behar izatea eskatzen du. Bero-ponpen bidezko sistemek 60 graduko edo baxuagoko ur bero sarea izan ohi dute. Tenperatura altukoek, aldiz –80 gradu edo gehiago denean–, berogailu sistema tradizionalekin ere ondo dabiktza, eta, beraz, sistemari egokitzeko etxe barruetako lanak –eta gastuak– murrizten dituzte. Kasu honetan, biomasa-galdarak dira egokienak.

Lan horiek guztiak egiteko gako konfiantzazko enpresa batekin bidea egitea da. Denetarik dago merkatuan, eta, orokorrean, irabazi asmoa denez irizpide nagusia, kontu handiz egin beharreko ibilbidea da; gure beharretara egokitu den eta emaitzak ziurtatuko dituen norbaiten aholkularitza ezinbestekoa izango da. ■